

FUNTSEZKO JARDUERAK:

- **Ekoizpen prozesua:**

Lehenik, ideia burutzeko, Eroski eta Mercadonarekin ditugun aliantzetatik, haiek soberan dituzten eta txakurren dietarako baliagarriak diren lehengaiak eskuratuko ditugu. Behar dugun janari kopurua eskuratzea ezinbestekoa da, horregatik, stock-a eta beharrezko baliabideak kontrolatuko ditugu. Horrela, enpresak alokatuta duen furgoneta elektrikoan gure lokalera eramango ditugu supermerkatuetatik jasotako lehengaiak. Behin lehengaiak izanda, lokaleko sukaldean sailkatuko ditugu dieta ezberdinak egiteko hain zuzen. Ondoren, barazkiak eta frutak garbitu eta ontziratuta hozkailuan sartuko ditugu, freskotasuna mantenduz. Horrez gain, haragia eta arrainak garbituko ditugu eta erabili ezin diren zatiak edo atalak kenduko ditugu. Azkenik, hozkailuan ontziratuta sartuko ditugu, bakteriak eta birusak sahiesteko. Dieta prestatzerakoan, lehenik haragia eta arraina behar den denborarekin desizoztuko ditugu. Guztia prest dagoenean, dieta bakoitzerako behar diren elikagaiak bertan zatitu, nahastu eta hutsean ontziratuko ditugu. Gero, aurretik diseinatutako poltsetan sartu eta dendan salduko ditugu.



- **Banaketa:**

Furgoneta elektriko bat alokatu izango dugunez, lehengaiak hartzeaz gain, banaketarako erabiliko dugu. Furgoneta elektrikoa denez, kutsadura eragotziko du, gure enpresaren bide ekologikoa bermatuz. Bestalde, internet bidezko salmenta egingo dugunez, etxez-etxeke banaketa egitea ezinbestekoa dela pentsatu dugu. Horrela, bezeroek ez dute zertan dendara etorri behar, eta abantaila bat da haientzat.

EKOIZTERAKO ORDUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO DATUAK:

TXAKUR KUMEAK	1-4 hilabete	4 - 5 hilabete	6 - 8 hilabete	9 - 11 hilabete
Kantitatea	Pisuaren %10	Pisuaren %8	Pisuaren %6	Pisuaren %3

HELDUAK	1-2 urte	2-4 urte	5-8 urte
Kantitatea	Pisuaren %3-4	Pisuaren %3-4	Pisuaren %3-4

NAGUSIAK	Pisuaren %3-4	Pisuaren %3-4	Pisuaren %3-4
Kantitateak	500g 4,5kg-ko	500g 4,5 kg-ko	500 g 4,5 kg-ko

- Txakurraren jarduera fisikoa kontuan hartu behar da:
 - Ez badu ia jarduerarik egiten, pisuaren %2
 - Jarduera fisiko handia duten helduek pisuaren % 4-5 jan behar dute
- Gehigarriak: txakurkumeak hezurak jan ezin dituztenez, kaltzioa duten elikagaiak nagusitu behar dira. Kurkuma, azeri-buztana, garagar legamia etab.

- Arazoak konpontzea:

Gure enpresaren bidez, saltzen ez den janaria berriz ere merkaturatzen ari gara alferrikako janari xahutzea murrizteko. Horrez gain, bizi dugun ingurumen krisiari irtenbidea jartzen diogula uste dugu, eta kontsumismo kutsakorra albo batera uztea ere.

Gainera, pentsuak gure maskotengan eragin ditzakeen gaixotasunak eragozten ditugu.



- Publizitatea:

Gure produktuek harrera ona izan dezaten sare sozialen bidez ezagutzera emango ditugu, horretarako enpresarena izango den instagram kontu bat zabalduko dugu (@baurf_dieta_durango) txakurrak dituzten jendea gure produktuez ohartarazteko. Gainera kartelak eta propaganda jarriko dugu gure hornitzaileak diren supermerkatuetan.

Aurrekoaren helburu berdinarekin jarraituz, gure webgunea abian jarriko dugu (<https://baurf.blogspot.com/>), non bezeroek gure enpresari buruzko informazioa aurkituko duten. Horrez gain, txakurrentzako dieta pertsonalatuak lortzeko testak ere eskuragarri egongo dira. Azkenengo hau txakurraren adinaren, arrazaren, pisuaren eta egiten duen jarduera fisikoaren menpe egongo da.

